Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko maiatzaren 9a, astelehena — 86 — Lunes, a 9 de mayo de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*30-014/2022 Foru Agindua, apirilaren 27koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aterpetxeen sarea erabiltzeko erregelamendua onesten duena.*

Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuak esleituta dituen jarduketa esparruen artean dago gazte taldeei eta gizarteko beste sektore batzuei aterpetxeen azpiegitura ezin hobea eta egokia eskaintzea, aisialdia okupatzeko programak garatzeko. Horrek, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasuneko aterpetxeen sarea kudeatzea dakar.

Sare hori hiru instalaziok osatzen dute gaur egun: Igerain aterpetxea Zarautzen; Juan Sebastian Elkano aterpetxea Hondarribian; eta Txurruka aterpetxea Orion. Hiru aterpetxe horiek, ikasturtean zehar, gazte elkarte eta talde asko eta ikastetxe ugari hartzen dituzte, Autonomia Erkidegokoak batez ere, azpiegitura egokia aurkitzen baitute beren aisialdian hezkuntza, jolas, kultura eta kiroleko ekintzak egin eta eskolako ikasketak osatzeko. Uda sasoian, berriz, hiru lurralde historikoetako foru aldundiek elkartuta eta koordinatuta antolatzen dituzten udalekuak eta kanpalekuak egiteko erabiltzen dira.

Hiru aterpetxeen artean, Txurruka aterpetxea, bere kokalekuagatik, bereziki egokia da mugikortasun urriko pertsonek uretako jarduerak egin ditzaten.

Bere eskumenen esparruan, Eusko Jaurlaritzak urriaren 18ko 406/1994 Dekretua onetsi zuen, haur eta gazte taldeei egonaldiak eta ostatua eskaintzen dizkieten aterpetxe eta instalazioak antolatzeari buruzkoa. Erregelamenduzko xedapen horretan eta xedapen hori garatzen duen Kulturako sailburuaren 1997ko azaroaren 12ko Aginduan, haur eta gazte taldeentzako aterpetxe edo instalazio gisa onartuak izateko establezimenduek bete behar dituzten baldintza teknikoak ezartzen dira.

Autonomia Erkidegoko administrazioaren xedapenetan jasotzen diren baldintza tekniko horiez gain, aterpetxeez baliatu ahal izateko oinarrizko beste zenbait arau ere ezarri behar dira, arautu behar baita, hain zuzen, zein izango den instalazioetako zerbitzuak kontratatzeko prozedura, erabiltzaile moten arabera zeini emango zaion lehentasuna, zeintzuk diren aterpetxeez baliatzeko modalitateak, prezio publikoak zenbatekoak izango diren eta nola ordainduko diren, eta abar. Hori guztia jasota dago foru agindu honen bidez onetsi den erregelamenduan, 2004ko martxoaren 10eko Foru Aginduaren bidez onartutakoa ordezkatzen duen erregelamenduan, hain zuzen.

Erregelamenduak lau kapitulu eta bi azken xedapen ditu.

I. kapituluan puntu orokorrak azaltzen dira, esaterako, erregelamenduaren xedea zein den, aterpetxeen sarea zerk bultzatuta sortu den, sareko instalazioak zeintzuk diren eta instalazioak ireki eta ixteko ordutegia.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

*Orden Foral 30-014/2022, de 27 de abril, por la que se aprueba el reglamento de utilización de la red de albergues de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

Dentro de las áreas de actuación que tiene encomendadas el Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes se encuentra la de desarrollar y ofertar una infraestructura óptima y adecuada de albergues a grupos juveniles y otros sectores de la sociedad, para el desarrollo de programas de ocupación de tiempo libre, lo que comporta, entre otras funciones, las de gestión de la red de albergues de titularidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Esta red está compuesta en la actualidad por tres instalaciones: El Albergue Igerain, en Zarautz; el Albergue Juan Sebastián Elkano, en Hondarribia; y el Albergue Txurruka, en Orio. Los tres acogen, durante el curso escolar, a gran número de asociaciones y grupos juveniles y centros escolares, especialmente de la Comunidad Autónoma, sirviendo de infraestructura para el desarrollo de sus actividades de educación en el tiempo libre, de ocio, culturales, deportivas o de complemento a la enseñanza escolar; y, durante la época estival, son sede de las campañas de colonias y campamentos de verano que organizan coordinada y conjuntamente las diputaciones forales de los tres territorios históricos.

Entre los tres albergues, el Albergue de Txurruka, por su situación, resulta especialmente apropiado para el desarrollo de actividades acuáticas por parte de personas con movilidad reducida.

En el marco de sus competencias el Gobierno Vasco aprobó el Decreto 406/1994, de 18 de octubre, sobre ordenación de albergues e instalaciones destinados a la estancia y alojamiento de grupos infantiles y juveniles. Esta disposición reglamentaria y la Orden de la consejera de Cultura de 12 de noviembre de 1997, que la desarrolla, recogen una serie de requisitos de índole técnica que deben reunir los establecimientos para su reconocimiento y funcionamiento como albergues o instalaciones de estancia para grupos infantiles y juveniles.

Al margen de esos requisitos técnicos contenidos en las aludidas disposiciones de la Administración autonómica, la utilización de los albergues precisa del establecimiento de unas normas básicas que regulen el procedimiento de contratación de los servicios que se prestan en las mismas, las prioridades que se tendrán en consideración según los distintos tipos de posibles usuarios, las modalidades de utilización de los albergues, la cuantía y modo de hacer efectivos los precios públicos que habrán de exigirse, etc.; todo lo cual se contempla en el reglamento que aprueba esta Orden Foral y que viene a sustituir al anteriormente aprobado por Orden Foral de 10 de marzo de 2004.

El reglamento se estructura en cuatro capítulos y dos disposiciones finales.

El capítulo I se refiere a cuestiones de carácter general como el objeto del propio reglamento, la finalidad que justifica la existencia de la red de albergues, las diferentes instalaciones que la forman y los horarios de apertura y cierre.

EK\CV GAO-I-2022-02646

II. kapituluan –erabiltzaileak– ezartzen da erabiltzaile moten arabera aterpetxeak erabiltzeko lehentasunak zeintzuk diren, erabiltzaile taldeak zenbat kidekoak eta zein adinekoak izan daitezkeen, eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak zeintzuk diren.

III. kapituluan arautzen dira aterpetxeetan eman daitezkeen zerbitzuak kontratatzeko prozedura, zerbitzu motak, eta zorpetutako prezioak ordaintzeko modua. Zerbitzuak aldez aurretik ordaindu behar dira.

IV. kapituluan, diziplinako arautegia ezartzen da; bertan aurreikusten dira aterpetxeetatik botatzea edota sartzeko debekua ekar ditzaketen zenbait jarduera, eta baita ere instalazioetan edo materialetan eragindako kalte-galerengatik sor daitekeen erantzukizuna.

Azkenik, amaierako xedapenetan, gazteriaren arloan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentuari ahalmena ematen zaio, alde batetik, erregelamenduari buruz sor litezkeen zalantzak argitzeko, organo judizialen eskumena baldintzatu gabe betiere, eta bestetik, aterpetxe bakoitzerako argibideen, zirkularren edo barne-arauen bidez, erregelamenduan jasota dauden eta osatu behar diren xedapenak garatzeko.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak

EBAZTEN DU

*Artikulu bakarra.*

Onestea Gipuzkoako Foru Aldundiaren sareko aterpetxeak erabiltzeko erregelamendua, Foru Agindu honen eranskin gisa doana.

*Xedapen indargabetzailea.*

Indarrik gabe geratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren sareko aterpetxeak erabiltzeko erregelamendua onetsi zuen 2004ko martxoaren 10eko Foru Agindua.

*Azken xedapena.*

Foru Agindu hau eta horren bidez onesten den erregelamendua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Donostia, 2022ko apirilaren 27a.—Iñaki Sainz Paredes, idazkari teknikoa. (2646)

*Gazte aterpetxeak erabiltzeko erregelamendua*

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren sareko aterpetxeen erabilera eta funtzionamendu baldintzak arautzea da erregelamendu honen xedea.

*2. artikulua.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aterpetxe sarean, honako instalazio hauek daude:

— Juan Sebastian Elkano aterpetxea, Higer bidea 7, Hondarribia.

— Igerain aterpetxea, San Inazio kalea 25, Zarautz.

— Txurruka aterpetxea, Oribarzar hondartza, Orio.

*3. artikulua.*

Aterpetxeak haur eta gazte taldeei egonaldiak eta ostatua eskaintzen dizkieten ekipamenduak dira, aisialdiko, hezkuntzako, kulturako, kiroleko eta jolaserako jarduerak egiteko eta beren ikasketak osatzeko.

El capítulo II –personas usuarias– establece las prioridades para el uso de los albergues entre los distintos tipos de usuarios posibles, el número y edad de los componentes de los grupos de usuarios y un catálogo de derechos y obligaciones que incumben a quienes ostenten tal condición.

El capítulo III regula todo lo relativo al procedimiento de contratación de los diferentes servicios que pueden prestarse en los albergues, tipos de ellos y forma de abono de los precios que se devenguen. Los servicios deben abonarse por adelantado.

Finalmente, el capítulo IV se refiere al régimen disciplinario, contemplando una serie de actuaciones que pueden provocar la expulsión y/o prohibición de entrada a los albergues, así como la responsabilidad por los daños y perjuicios que puedan causarse en instalaciones o materiales de los mismos.

Por último, las disposiciones finales atribuyen al Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de juventud las facultades de interpretar las dudas que puedan suscitarse en la aplicación del reglamento, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales, y de desarrollar, a través de instrucciones, circulares o normas de carácter interno para cada albergue, las disposiciones contenidas en el mismo que precisen ser complementadas.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

RESUELVE

*Artículo único.*

Se aprueba el reglamento de utilización de los albergues de la red de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que se acompaña como anexo a la presente Orden Foral.

*Disposición derogatoria.*

Queda derogada la Orden Foral de 10 de marzo de 2004, por la que se aprueba el reglamento de utilización de los albergues de la red de la Diputación Foral Gipuzkoa.

*Disposición final.*

La presente Orden Foral y el reglamento que aprueba entrarán en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 27 de abril de 2022.—El secretario técnico, Iñaki Sainz Paredes. (2646)

*Reglamento de utilización de los albergues de juventud*

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

El objeto del presente reglamento es regular las condiciones de uso y funcionamiento de los albergues que forman la red de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Artículo 2.*

La red de albergues de la Diputación Foral de Gipuzkoa se compone de las siguientes instalaciones:

— Albergue Juan Sebastián Elkano, Higer bidea, 7, Hondarribia.

— Albergue Igerain, sito en San Inazio kalea, 25, Zarautz.

— Albergue Txurruka, playa Oribarzar, Orio.

*Artículo 3.*

Los albergues son equipamientos que ofrecen estancias y alojamiento a grupos infantiles y juveniles para la realización de actividades de ocio, educación, cultura, deporte y recreo y de complemento a la enseñanza escolar.

*4. artikulua.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren sareko aterpetxeak 09:00etatik 24:00etara egongo dira irekita.

Okupazio txikieneko hilabeteetan, aterpetxeak oporrengatik edo mantentze lanetarako itxi ahal izango dira.

II. KAPITULUA

ATERPETXEETAKO ERABILTZAILEAK

*5. artikulua.*

1. Aterpetxeetako instalazio eta zerbitzuez baliatzeko lehentasuna, honako hauek izangu dute:

a) Legez eratuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren erregistroan izen emanda dauden gazte elkarteek.

b) Legez eratuta ez egon arren, funtzionamendu arautu eta iraunkorra dutela behar bezala egiaztatzen duten Euskal Herriko gazte taldeek.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeek.

2. Irabazi asmorik gabeko gainerako entitateak ere erabiltzaileak izan daitezke, baldin eta legez eratuta baldin badaude edo funtzionamendu arautu eta iraunkorra dutela jomuga sozial eta kulturaleko edozein erakunde publiko edo pribaturen bidez egiaztatzen badute.

*6. artikulua.*

1. Ezingo dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren sareko aterpetxeak erabili soilik senideez edo lagunez osatutako taldeek.

2. Zarauzko eta Hondarribiko aterpetxeetan ostatu har dezakete Gazteentzako Aterpetxeen Espainiako Sareko (REAJ) txartela edo International Youth Hostel Federation (IYHF) entitatearen txartela dutenek.

*7. artikulua.*

Aterpetxeak erabili ahal izateko, talde bakoitzak gutxienez hamabi (12) lagunekoa izan behar du.

*8. artikulua.*

1. Erabiltzaile izateko, gutxienez, hiru (3) urte beteak eduki behar dira.

2. Gazte talde edo elkarteko kideek hemezortzi (18) urte baino gutxiago baldin badute, hogei (20) haur edo gaztez osatutako talde bakoitzeko monitore arduradun bat jarri behar da.

Taldeetako kideak haurrak badira, monitore arduradun bat egongo da hamar (10) pertsonako.

*9. artikulua.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aterpetxe sareko erabiltzaileek eskubide hauek dituzte:

a) Erregelamendu honen eta aterpetxeetako barne arauen arabera kontratatutako instalazio eta zerbitzuak erabiltzeko.

b) Zerbitzu prestazioen baldintzei buruz informazio zuzena, zehatza eta osoa jasotzeko.

c) Kontratuaren zehaztapenak egiaztatzen dituzten agiriak jasotzeko eta, betiere, dagozkion ordainagiriak.

d) Kexak edo erreklamazioak egiteko, eta, horretarako, erabiltzaileei bitarteko hauek jarriko zaizkie eskura: erreklamazio orriak, gogobetetasun galdetegia eta internet.

*Artículo 4.*

Los albergues de la red de la Diputación Foral de Gipuzkoa permanecerán abiertos desde las 09:00 hasta las 24:00 horas.

Durante los meses de menor ocupación, los albergues podrán ser cerrados por vacaciones o para realizar labores de mantenimiento.

CAPÍTULO II

PERSONAS USUARIAS DE LOS ALBERGUES

*Artículo 5.*

1. Tendrán prioridad para la utilización y disfrute de las instalaciones y servicios de los albergues:

a) Las asociaciones juveniles legalmente constituidas e inscritas en el registro de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Los grupos juveniles del País Vasco que, no estando legalmente constituidos, acrediten fehacientemente un funcionamiento regular y permanente.

c) Los centros de enseñanza de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. En segundo lugar, podrán ser usuarios de los albergues el resto de entidades sin ánimo de lucro, legalmente constituidas o que puedan acreditar un funcionamiento regular y permanente a través de cualquier institución pública o privada de carácter social y cultural.

*Artículo 6.*

1. Quedan excluidos de la utilización de los albergues de la red de la Diputación Foral de Gipuzkoa los grupos meramente familiares o de amistades.

2. Los albergues de Zarautz y Hondarribia podrán acoger alberguistas con carnet de la Red Española de Albergues Juveniles (REAJ) o de la International Youth Hostel Federation (IYHF).

*Artículo 7.*

Para hacer uso de los albergues cada grupo deberá estar compuesto por un mínimo de doce (12) personas.

*Artículo 8.*

1. Para ser usuaria es necesario tener cumplidos al menos tres (3) años.

2. Cuando los miembros de la agrupación o asociación juvenil sean menores de dieciocho (18) años, se dispondrá de un monitor o monitora responsable por cada veinte (20) niños y niñas o jóvenes.

Cuando los componentes de los grupos sean de edad infantil, la proporción de monitores responsables será de uno por cada diez (10) personas.

*Artículo 9.*

Los usuarios de la red de albergues de la Diputación Foral de Gipuzkoa tienen los siguientes derechos:

a) Utilizar las instalaciones y servicios contratados, de acuerdo con el presente reglamento y con la normativa interna de cada albergue.

b) Recibir información objetiva, exacta y completa sobre todas y cada una de las condiciones de prestación de los servicios.

c) Obtener cuantos documentos acrediten los términos de su contratación y, en cualquier caso, los recibos correspondientes a la misma.

d) Formular quejas o reclamaciones, para lo cual tendrán a su disposición los medios adecuados para ello: hoja de reclamaciones, cuestionario de satisfacción o vía internet.

EK\CV GAO-I-2022-02646

e) Alor honetako legeetan aitortzen zaizkien gainerako eskubideak.

*10. artikulua.*

Aterpetxeetako erabiltzaileen betebeharrak honako hauek dira:

a) Erregelamendu honetan eta, hala badagokio, aterpetxe bakoitzeko barne araudian ezarritakoa eta Gipuzkoako Foru Aldundian gazteriaren arloko eskumena duen Departamentuak emandako jarraibideak betetzea.

b) Instalazioak eta instalazioetako ekipamendu eta zerbitzuak zaintzea.

c) Funtzionamenduko akatsak eta instalazioetan antzemandako matxura eta hutsuneak instalazioetako langileei jakinaraztea.

d) Beste erabiltzaileen eskubideak errespetatzea eta, bereziki, aretoen erreserbari eta espazio komunen erabilerari buruz aldez aurretik erabakitakoa betetzea.

e) Instalazioen barruan behar bezala jokatzea eta, hala, langileen eginbeharra eta erabiltzaileen arteko elkarbizitza ez oztopatzea.

f) Aterpetxeetako irteera eta sarrera orduak errespetatzea eta langileek helburu horretan emandako jarraibideak betetzea.

g) Indarrean dagoen legerian edo erregelamendu honetan ezartzen diren gainerako betebehar guztiak.

*11. artikulua.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aterpetxeetan ezin da edari alkoholdunik edan, ezin da erre, eta ezingo da animaliarik sartu, itsuen edo ikusmen-urritasun larria duten pertsonen txakur gidariak izan ezik.

*12. artikulua.*

Gazteria Zuzendaritza Nagusiak foru aterpetxeen sarearen kudeaketari dagokion Tratamendu Jardueren Erregistroa prestatuko du eta egoitza korporatiboan argitaratuko du. Erregistro horretan, gutxieneko gai hauek garatuko dira:

Erreserbak eta ordainketak kudeatzeko emandako datu pertsonalak «Foru aterpetxeetako erreserba eta ordainketen zentrala» izeneko tratamendu jardueran sartuko dira.

Gazteria Zuzendaritza Nagusia da tratamenduaren organo arduraduna.

Datu pertsonalak erreserbak kudeatzeko eta, ondoren, zerbitzuak ordaintzeko dokumentuak egiteko erabiliko dira, emandako baimenean eta botere publikoen erabileran oinarrituta.

Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko.

Gazteria Zuzendaritza Nagusiak aterpetxeen erabiltzaileen tipologiari buruzko estatistika orokorrak egin ahal izango ditu, erabiltzaileen datu estatistiko orokorrak eskainiz eta titularrekiko disoziazioa bermatuz.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko, mugatzeko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, inprimaki hauek dituzu helbide honetan: https://egoitza.gipuzkoa.eus.

Zure datu pertsonalen tratamenduari eta eskubideak erabiltzeari dagokionez, https://www.gipuzkoa.eus/eu/pribatutasuna kontsulta dezakezu, edo datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke helbide honetan: dbo@gipuzkoa.eus.

e) Cualesquiera otros derechos que vengan reconocidos en la legislación vigente de aplicación.

*Artículo 10.*

Las obligaciones de las personas usuarias de los albergues son las siguientes:

a) Respetar lo establecido en el presente reglamento y, en su caso, en la normativa interna de cada albergue, y las instrucciones que dicte el Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de juventud.

b) Hacer un buen uso de las instalaciones y de su equipamiento y servicios.

c) Comunicar a las personas empleadas de las instalaciones las anomalías de funcionamiento, roturas y deficiencias de las instalaciones que observen.

d) Respetar los derechos de otras personas usuarias, especialmente en las reservas de salas y espacios comunes previamente concedidos.

e) Comportarse correctamente en las instalaciones facilitando en todo momento la labor de las personas empleadas y la convivencia con otras personas usuarias.

f) Respetar los horarios de apertura y cierre de los albergues, atendiendo las indicaciones de las personas empleadas en este sentido.

g) Cualesquiera otras obligaciones que se deriven de la legislación vigente o del presente reglamento.

*Artículo 11.*

En la red de albergues de la Diputación Foral de Gipuzkoa estará prohibido el consumo de bebidas alcohólicas, no se puede fumar, y no se permitirá la entrada de animales, excepto la de perros guía de personas ciegas o con una deficiencia visual grave.

*Artículo 12.*

La Dirección General de Juventud elaborará y publicará en la sede corporativa el Registro de Actividades de Tratamiento correspondiente a la gestión de la red de albergues forales. En dicho registro se desarrollarán estas cuestiones mínimas:

Los datos de carácter personal facilitados para la gestión de las reservas y pagos serán incorporados a la actividad de tratamiento denominado «Central de Reservas y pagos de los albergues forales».

El órgano responsable del tratamiento es la Dirección General de Juventud.

Los datos personales serán tratados con la finalidad de gestionar las reservas y elaborar posteriormente los documentos de pago de servicios, en base al consentimiento otorgado y al ejercicio de poderes públicos.

Los datos personales no serán objeto de comunicación a terceros.

La dirección general de Juventud podrá elaborar estadísticas generales sobre la tipología de los usuarios de los albergues, ofreciendo datos estadísticos generales de los usuarios, garantizando la disociación respecto a sus titulares.

Para el ejercicio ante el responsable de los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, dispone de formularios en esta dirección: https://egoitza.gipuzkoa.eus.

Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede consultar https://www.gipuzkoa.eus/es/privacidad o ponerse en contacto con el delegado de protección de datos en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus.

EK\CV GAO-I-2022-02646

III. KAPITULUA

ATERPETXEETAKO INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK ERABILTZEKO ARAUBIDEA

*13. artikulua.*

1. Aterpetxeetako instalazio eta zerbitzuak erabiltzeko modalitatea aukeratutako ostatu zerbitzuari dagokiona da.

Une bakoitzean indarrean dauden modalitateak aterpetxe bakoitza erabiltzeko eskaera formularioetan agertzen direnak izango dira.

2. Gazteria Zerbitzuak aldez aurretik behar bezala justifikatutako egoeretan baimendu ahal izango ditu hautatutako erabilerari lotutako zerbitzu horien salbuespenak.

Salbuespen hori dela eta, baimena edo ukapena, arrazoitu behar bada ere, diskrezionala izango da.

*14. artikulua.*

1. Zerbitzuak eskuratzeko eta gelak erabiltzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak dekretu bidez onartutako prezio publikoak ordaindu behar dira.

2. Prezio publikoen dekretuak tarifa mota desberdinak arautu ahal izango ditu, erabiltzaile moten, haien gaitasun ekonomikoaren edota ezar daitezkeen beste gai batzuen arabera.

*15. artikulua.*

1. Aterpetxeen erabilerarako erreserba egin daiteke Gazteria Zerbitzuko Informazio eta Erreserba Zentralaren bidez eta internet bidez. Prozedura honako hau izango da:

Instalazioan toki, zerbitzu eta egunen aldetik eragozpenik ez dagoela egiaztatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gazte aterpetxeak erabiltzeko erreserba egin nahi duten erabiltzaileek (ikus foru agindu honetako 5. artikulua) egonaldi osoaren % 25eko gordailua egin beharko dute konturako aurrerakin gisa.

— Taldea instalaziora sartu baino hamar egun lehenago, egonaldiaren kostu osoaren gainerako % 75a ordaindu beharko da.

— % 75eko bigarren ordainketa hori ez bada egiten, talde erabiltzaileak galdu egingo luke konturako aurrerakina, baita instalazioa erabiltzeko eskubidea ere, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak plazak beste entitate bati adjudikatzeko eskubidea izango du.

— Plazak erreserbatzeko aurreratutako diru kopurua, deuseztapen-aldi eta ehuneko hauen arabera itzuliko da:

1. % 100, gazte aterpetxean egonaldia hasteko eguna baino bi hilabete lehenago deuseztatzen bada erreserba.

2. % 50, gazte aterpetxean egonaldia hasteko eguna baino hilabete lehenago deuseztatzen bada erreserba.

3. Ez da dirurik itzuliko aterpetxean egonaldia hasteko hilabete baino gutxiago geratzen dela deuseztatzen bada erreserba.

— Bigarren ordainketa egin ondoren inoiz ez da dirurik itzuliko, non eta ez den ustekabekoren bat gertatu, edo egonaldia bertan behera uzteko erabakia Gipuzkoako Foru Aldundian gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak hartzen ez duen.

2. Ordainketaren egiaztagiria edo ordainketa gutuna da hitzartutako zerbitzuak eta talde, elkarte eta ikastetxe hartzailearen nortasuna egiaztatzen dituen agiria, eta aterpetxean sartzeko momentuan aurkeztu beharko da. Arduradunaren izena eta taldeko kideen zerrenda ere aurkeztuko dira aterpetxean, ezarrita dagoen ereduaren arabera.

CAPÍTULO III

RÉGIMEN DE UTILIZACIÓN DE LAS INSTALACIONES Y SERVICIOS DE LOS ALBERGUES

*Artículo 13.*

1. La modalidad de acceso a las instalaciones y servicios de los albergues es la correspondiente al servicio de alojamiento elegido.

Las modalidades vigentes en cada momento serán las que figuren en los formularios de solicitud de utilización de cada albergue.

2. El Servicio de Juventud podrá autorizar excepciones a estos servicios vinculados al uso elegido en situaciones previamente y debidamente justificadas.

Debido a dicha excepcionalidad la autorización o denegación, aunque deba motivarse, será discrecional.

*Artículo 14.*

1. Para disponer de los servicios y utilizar las dependencias es necesario abonar los precios públicos aprobados por Decreto de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. El Decreto de precios públicos podrá regular diferentes clases de tarifas, en función de las clases de usuarios, su capacidad económica y/u otras cuestiones que se puedan establecer.

*Artículo 15.*

1. La reserva para la utilización de los albergues se realizará a través de la Central de Reservas e Información del Servicio de Juventud y vía internet. El procedimiento será el siguiente:

Una vez comprobada la disponibilidad de plazas, servicios y fechas de estancia en la instalación, los/las usuarios/as a que se refiere el artículo 5 de esta orden que deseen hacer uso de un albergue juvenil de la Diputación Foral de Gipuzkoa deberán realizar un depósito de un 25 % del total de la estancia para hacer la reserva, que tendrá la consideración de anticipo a cuenta.

— Diez días antes de la fecha de entrada del grupo a la instalación se deberá efectuar el ingreso del restante 75 % del total de la estancia.

— De no realizarse este segundo pago correspondiente al 75 %, el grupo usuario perdería tanto el anticipo a cuenta como el derecho a utilizar la instalación y el Servicio de Juventud de la Diputación Foral de Gipuzkoa podría adjudicar, en su caso, las plazas a otra entidad.

— El importe anticipado en concepto de reserva de plazas se devolverá de acuerdo con los siguientes periodos de anulación y porcentajes:

1. El 100 %, siempre que la anulación se efectúe con dos meses de antelación a la fecha de entrada en el albergue juvenil.

2. El 50 %, si la anulación se realizase con un mes de antelación a la fecha de entrada en el albergue juvenil.

3. La reserva no se devolverá a partir de un periodo inferior a un mes anterior a la fecha de entrada en el albergue juvenil.

— Una vez realizado el segundo pago, en ningún caso se devolverá cantidad alguna, salvo en casos de fuerza mayor, o cuando la causa sea motivada por la suspensión de la estancia por parte del Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de juventud.

2. El justificante o carta de pago es el documento acreditativo de los servicios contratados y de la identidad del grupo, asociación o centro escolar que vayan a utilizarlos, y deberá ser presentado en el momento de la incorporación al albergue. También deberá ser presentado en el albergue el nombre del responsable y la relación completa de los integrantes del grupo, según el modelo establecido.

EK\CV GAO-I-2022-02646

3. Gazteria Zerbitzuaren eskumen diskrezionala izango da erreserban adierazitakoa baino jende kopuru handiagoko taldeak onartzea. Kasu horretan, benetan emandako zerbitzuengatik egingo da fakturazioa.

4. Kontratatutako lehen zerbitzua hasi baino gehienez ordubete lehenago iritsi behar da aterpetxera; irten, berriz, azken zerbitzua bukatu eta gehienez ordubete beranduago egin behar da, behar bezala justifikatutako salbuespenezko arrazoiak daudenean salbu.

5. Erreserba daten aldaketa:

— Erreserbaren datak urte berean aldatu ahal izango dira, behin bakarrik, aterpetxean sartu baino hilabete lehenago gutxienez. Behin aldaketa hori eginda, erreserba ezeztatu nahi bada, ezerezte-politika aplikatuko da jatorrizko erreserbaren datei dagokienez.

IV. KAPITULUA

DIZIPLINA ARAUBIDEA

*16. artikulua.*

1. Aterpetxetik bota edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren aterpetxeetako sarrera urtebetetik bost urterainoko epean –egintzen larritasunaren arabera– debekatu ahal izango zaie erregelamendu honetan, aterpetxeetako barne arauetan edo Gipuzkoako Foru Aldundian gazteriaren arloko eskumena duen Departamentuak nahiz aterpetxeetako arduradunek haren izenean emandako jarraibideetan agindutakoa betetzen ez duten pertsona edo taldeei.

2. Zehazki, hauek izango dira kanporatzeko edota sarrera debekatzeko arrazoiak:

a) Instalazioak, materialak, aretoak nahiz gela komunak nahita hondatzea edo horiek guztiak zaindu ordez axolagabekeriaz jokatzea.

b) Aterpetxeko zuzendariaren jarraibideei behin eta berriro jaramonik ez egitea.

c) Norberaren portaera dela eta, aterpetxeko zerbitzuen funtzionamendu egokia edo erabiltzaileen arteko elkarbizitza etengabe oztopatzea.

d) Instalazioak, utzitako materialak, aretoak edo aterpetxeko beste gelak beste helburu batzuetarako erabiltzea.

*17. artikulua.*

Nolanahi ere, utzitako instalazio edo materialak hondatzen dituenak aurre egin beharko die egindako kalte-galerei.

Erantzukizun hori eta, kasua bada, egokiak izan daitezkeen zigorrak eskatzeko, uztailaren 9ko 8/1996 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondarearenak, IV. tituluan edo hura ordezten duen araudian ezarritakoari jarraituko zaio.

AMAIERAKO XEDAPENAK

*Lehena.*

Erregelamendu honetan xedatutakoari buruzko edozein zalantza Gipuzkoako Foru Aldundian gazteriaren arloko eskumena duen Departamentuak ebatziko du eta hark erabakitakoa berehala betearazi beharrekoa izango da.

*Bigarrena.*

Gipuzkoako Foru Aldundian gazteriaren arloko eskumena duen Departamentuari dagokio erregelamendu honetan ezarritakoa garatzen duten jarraibideak eta zirkularrak onartzea.

3. Será competencia discrecional del Servicio de Juventud la aceptación de un número de personas usuarias mayor que el que figura en la reserva. En este caso, la facturación se realizará por los servicios realmente prestados.

4. La entrada al albergue será, como máximo, una hora antes del primer servicio contratado, y la salida, como máximo, una hora después del último servicio, salvo causa excepcional debidamente justificada.

5. Modificación de fechas de reserva:

— Las fechas de la reserva podrán ser modificadas en el mismo año, una sola vez y con una antelación mínima de un mes a la fecha de entrada en el albergue. Una vez realizada esta modificación, si se desea realizar una cancelación, se aplicará la política de cancelación respecto a las fechas de la reserva original.

CAPÍTULO IV

RÉGIMEN DISCIPLINARIO

*Artículo 16.*

1. Podrá expulsarse del albergue correspondiente y/o prohibirse la entrada a los albergues de la red de la Diputación Foral de Gipuzkoa por un período de entre uno y cinco años, en función de la gravedad de los hechos, a aquellas personas o grupos que incumplan lo dispuesto en este reglamento, en la normativa interna de cada albergue o en las instrucciones que en orden a su aplicación dicte el Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de juventud o, en su nombre, los responsables de cada centro.

2. En concreto, constituirán motivos para la expulsión y/o prohibición señaladas los siguientes:

a) El deterioro intencionado o la negligencia grave en el cuidado y conservación de las instalaciones o materiales cedidos o el de las salas y dependencias comunes.

b) La reiterada desobediencia a las instrucciones de la dirección del albergue.

c) El mantenimiento de un comportamiento obstinadamente contrario al buen orden de los servicios o de la convivencia con otras personas usuarias del albergue.

d) La utilización de las instalaciones o materiales cedidos o de las salas y demás dependencias del albergue para fines distintos de los que constituyen su objeto específico.

*Artículo 17.*

En todo caso, el/la causante de deterioros en las instalaciones o materiales cedidos responderá de los daños y perjuicios ocasionados.

Dicha responsabilidad y las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder, se exigirán conforme a lo dispuesto en el Título IV de la Norma Foral 8/1996, de 9 de julio, de Patrimonio del Territorio Histórico de Gipuzkoa o normativa que, en su caso, la sustituya.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*

Cualquier duda que pueda surgir respecto de la interpretación de lo dispuesto en el presente reglamento, será resuelta por el Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de juventud, siendo sus resoluciones inmediatamente ejecutivas.

*Segunda.*

Es competencia del Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de juventud la aprobación de instrucciones y circulares que desarrollen lo establecido en este reglamento.

EK\CV GAO-I-2022-02646